

Agertuko dira:

MARTINA: Maitecharren ama.  
 DOMINIKA: Maitecharren izaba.  
 MARIENA: AUZOÀ.  
 KATTINA.  
 MAITECHA.  
 JUANANO.

Dominika josten ari da sukaldean; borta joiten dute.

DOM - Nor da hor? To zu zinena Mariena? Zoin untse egin duzun jitea; Bakar bakarrik naiz. Martina Aosteiko Kattalinen ikusterat joana eta Maitecha belar etan ari Menechekin.

MARIENA - Ba, badakit eta hartako heldu niz zurekin solasean artzerat; Nola zerezte "Erreka cholena"?

DOM - Untse, arras untse Jainko maiteari esker; jar zaite eta zuek Maitecharren?

MAR - Gu ere ez gira gaizki... Kadet beti arangura bere erretatima izan horietarik, baina ez da hendi zerbait jautzirik ere. Gizagaizoa!!! Badu bere denboran lan onik eginik; bausk egun eginak ari izan da bere zortzi haurren hazteko; ez britzen ba lehen, sosa orai bezela pupilka!

DOM - Egia duzu zer kambioa!... eta zuk ere Mariena baduzu ba zerbait ikusirik...

MAR - Egia erretateko ez nintzen ez bethi Eliza phestan.

DOM - Baina ikusiak ikusi, orai ontse zirezte?

MAR - Orai ba... egia da Jainkoak benediketzen dituela familia handiak. ezkenean oro arras ontse itzuli zauku.

DOM - Ba... ba... Beñat aphez eta Gachucha serora, hor berean zer atsegina.

MAR - Bertze lau ezkonduak etche onetarat eta bihurtzeko... Mariena chaharrona etchean gure tratatzeko eta gaztena Battitta....

DOM - Hura ere orai ezkont adinean.

MAR - Ba, eta ez dut urrikari izanen hura hartuko duena; mutiko bihotz handikoa da, langilea eta zuhurra; dena bere aita.

DOM - Egungo egunean guti den bezalakorik... Ez ethe du nehor begistatarik?

MAR - Begistatzea eski balitz! Baina herek begiz joak nahi lukea?

DOM - Nola ez?... Iduritzen zaute hauta balukela.

MAR - Hala denaz geroz, behar dauzute zerbait erran.

DOM - Errozu, errozu gustuan....

MAR - Badakizue nortez agradatur den? Zuen Maitechaz... ..

DOM - Baia?... "z laitezke gaizki elgerrekin....

MAR - Baina Maitechak nahi lukea?...

DOM - Nik uste ba... harrek ere arras gustuko du Battitta.

MAR - Hobe segur... Battitta ez zen menturatzen deuseren erakusterat erortea... zeren Maitecha anderechkoa baitzako harentzat.

DOM - Anderechkoa?... Pimpirin aire bat izana gatik, arras langilea da eta laborantzen gustu.

MAR - Eta famen arabera uste zuen jaun bat hartuko zuela.

DOM - Jaun bat? Zer luke jaun batek Battitta baino gehiago... Behin hain bertze....



- MAR - Ah bai! "mazte alfer bat din jostatzea baizik ez duana gogoan.
- DOM - Bertze hoi ere batere ez zakigun nolako den; badakin erran zaharra:  
"Urruneko eltzea Urhez, gu herat orduko lurrez".
- MAR - Zoin gibel beldurra hizen.
- DOM - Aldiz Battittarekin ez giniken deuseren beldurrik; mutiko ezagutut  
dun, baliosa eta duna. Egina ditine partinen guziak eta etchea  
beretako din. Begien bichtan den iguzkiko ontasun ederra. Ez dun  
holakorik!
- MAR - Utzan Battitta bere gisa; Maitechak hirian bertze bizi liken...
- DOM - Zer? Hire haur bakarra etchetik kampo? ... Rochalik eZarri hau  
naski undarra mentsturik.
- MAR - Ez batere! Andere litaken, bethi aphaindua, usin on bat hedatuz eta  
lan guti edo baterez; aldiz zoko huntan ari behar liken beti lurrare-  
kin borroka.
- DOM - Lurrak emaiten din berea; hemen bazterrak zabal haurren hazteko,  
iguzkia nasai, airea garbi eta bizitzee pausukoa... Hirian, tokia  
hettchi bazterre chuko, burua hartua bizi beharrenekin, bethi lasterka  
tenorea bere iguzkiari eintzinka...
- MAR - Hiritarrek oro hobeki on hartzen ditine... izpiritua ez dine hemen  
bezain hertsia... Gilen zenak ere, ez deuseria batzu ez zaitanan  
onhartzen.
- DOM - Gilen! Hiri eman zen baino sentar hobea zunan. Kasik estabururik  
gabeko gizona.
- MAR - Ez dinat erreiten... Bainen Maitecha sortu zenean orran nionea :  
"Haurno hani eman baginez izentzat Gizera?" "Herdetsi zautanan"  
"Zer Chichela? Baduzue burrutik?" - B tere, oraiko izenatarik da...  
- "Zaude ichilik emaztekie, Chichela? Zertako ez trukasa emo mailua".  
Gizon ttontoa; nehi zakonan eman izentzat Geechene bere ama zenaren  
orhoitzapenetan... Azkenean arisren bortchen ardietsi ninan Maitecha.
- DOM - Untsa izen gochoa....
- MAR - Bertze aldi bat ere ikusi ninan auzo honetan mazteari biziki  
soineko pollita; Zeta kukoso kolore... Untsa nahiko ninan holako bat...  
Orduan ere, zeta ez zela enetzat gisa... eta zenbat holako!!!
- DOM - Horiek gauza biziki ttipiak ditun...
- MAR - Hiritar batek denak onhartuko zitinan!
- DOM - Eta bertze handiagoko ainitz jasansaziko...
- MAR - Ez din balio mokoka ar gaiten; Maitechak eginen din berak bere  
hautua.
- DOM - Ez zazkonala Rochaliren ele buzten horiek aipha.
- MAR - Ez dinat erreiterik... Denak bazazkin: ari omen ditun egun guziet  
elgarrekin solasean.
- DOM - Ez zakuun ba deuserik erran; dudarik gabe ez zakon balio; ez badin  
gauza hori hik bezain barna hartu.
- MAR - Edo aiphatzeko beha zagon ezkontza finkatu arte!
- DOM - Gure haur hori mireila bezain klara dun. Segidarik eman nehi ukon  
balu aiphatuko zaukunan eta gure xg argiak galdeginen.
- MAR - No, horra nun helduden berehala jakinen diun.
- DOMINIKA , MARTINA , MAITECHA.
- MAITECHA- (heldu d kentuz) "Nola hañ bainaz sortua  
han utziko dut mundua  
galtzen ez badut ez zue!"
- DOM - Sor lekuan, utz mundua ez dun holakorik.



Lozakete Kattalin eta Domingok, gu ikustearekin heldu apainduak, erredan jarriek andere handi katzuen pare... Erran Maitecha, nehorek ez din hize on nik baino hobeki nehi.

MAI - Badakit amatto, bainan on hura nun den, behar zinuke ikusi.

MAR - Gause bat hita eman behar dutan, idurike zan eta buru kolperik ez egin.

MAI - Bon... idurikatuko dut beraz.

MAR - Untsa dun denborak asko itzuli ekartzen din.

### DOMINIKA - MARTINA - MAITECHA - KATTINA

KAT - Hela! Bada norbait? (Kattina sartzenda) Egun guziez bezala jin niz esne keta; baxtukien izen biz behaak oraino deiztekoak eta ranech falta.

DOM - Haundia da, nun othe da?

MAI - Zate Kattina nik deiziko ditut behaak.

KAT - Zuk badakizue behi deizten?

MAI - Ee, lan mota guzietan usetua niz.

KAT - Heatik hemendik harat utziko ditutzu denak andere haundi bilhakatzeak.

MAR - Zuk ere aditu duzue zerbaite?

KAT - Ez badakirik nik bainan denek badakite; ez zireztea usu elgarrekin?

MAI - Etchetik jala orduko beti zangoen azprietan dut. Ez, ez daket ba entraderik egiten; doi-doi galdean iherdesten eta hura ere ez beti. Ez dut begiko zikina baino gehiago ikusten ahal.

KAT - Zer diezu Maitecha? Ez banintza soles horiek ene beharriez aldi ez nizatseke sinhets. Holako jaun ez nehi!!!

MAR - Ikusten dun:

... gaur benindu joan nintzen horrekin lorietan, bi begiak hotsarik eta ohingilike lurraren heandiraino.

MAR - Nik maite... maite gazteak.

DOM - Sinhetan dinat: enuchent sortu, enuchent bizi eta enuchent hil!

MAR - Ete gure nekia hori dena bere site zena.

DOM - Beharrik!

KAT - Errezu Dominika, zuk ere ikusten bazinu jaun hura agrada zinitaiz-  
ke.

DOM - Husia oth: Jandean artzegunean, gure oilategiko ezkinan zen etche-  
ari burua heldu eta errennion ahal bezala ene erdara maskeilean,  
eirehematik zaitzekeela eta bidea ezker zuela... Ez bainuen bitere  
haren gutiziarik etche barnerat.

MAI - Zoin unte egin dusun Tentte.

MAR - Zer? Hori egin baitun! Ez dun holakorik salhatu... Ah! Kattina, Kattina, hurbilek burua gal-araziko dutate.

DOM - Gaitzeko behar luke...

MAR - Nik ikusi banu bedoren! Mar-araziko nuen eta sotho chokoan duten orno hoberenetik emanen.

KAT - Nik ere Martine hola egiten nuen. .. Balio bailuke holako jaun aberetsaren unte arhatzea.

MAR - Beraz aberatsa da biziki?

KAT - Ba, biziki. Erraiten zautan Chabina Urcho-Churiko nesketak ez dutela oraino holakorik izen: den gutieneko mezuzarentzat berrogoi eta hamar... berrogoi edurren: tarik, athorrek zetak, mokenes batzu emanen... berrogoi... ganberan sartzean usain ona befadaka



JUA - Ba, gure nagusiari erran diote: Duela zombait egun jin ziren Parisetik jende batzu Urtcho-Churirat. Ikusi zuten horren erhaztun ederra eta ohartu ziren heiek behaztzearekin gordezerat bezala egin zuela. Bertzalde bera ere bereala bichtatik joan zen. Baitzakiten ohointza handi bat egin zela urheria etche batean, behartzen lekuan mintzatu dire eta hortarik....

MAR - Ez zaut gogorat jin holakorik izan zitakela ere. <sup>1</sup>duritzen zaut aments tsar batean nizela.

DOM - Ni, ez nun batere harritzen. Ez dun sekulan fidatzeko arrotz horieri.

MAR - "z ditun ez denak hořakoak.

DOM - Beharrik! Bainan gisako hekiek hatchemaiten ditine bere ingurietan berak iduriak gut'artekoen ondotik jin gabe.

MAI - Bertzenaz ere aise kurrizteko izariko zapeta behar da.

JUA - Egia duzu haurra: Ttipieiak min egiten du eta handieiak akitzen.

MAR - Harritua eta lastua niz ikusiz ene alaba nori eman nahi nuen.

DOM - "rakaspen hunek emanen ahal daun zentzu pochi bat... Hemendik harat denek ikus ditzagun gauzak diren bezala eta ez bakotchak gure ametsen arabera.

MAR - Ah, ah! Ez errebelatzeko egonen gitun bethi tintikka estekatus, Jainkoari, lurrari eta gure ohidura guzieri.

MAI - Hitz batez izanen gira osoki ESKUALDUN

DENEK (kantuz) BIBA ESKUAL-HERRIA! BIBA ESKUALDUNAK!

MART - ETA BIBA BATTITTA!